



**Ebazpena, 2024ko abuztuaren 6koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazio Zuzendariarena, uztailaren 15eko 135/2008 Dekretua aldatzen duen xedapen orokor bat egiteko aurretiazko kontsulta egitekoa.**

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak egokitzat jotzen du xedapen orokor bat egitea, gasa kanalizazio bidez banatzen duten enpresek erabiltzaileei ematen dizkieten zerbitzuen kostuak arautzen dituen uztailaren 15eko 135/2008 Dekretua aldatzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, xedapen arauemaile baten proiektua egin aurretik kontsulta publikoa egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez; bertan, etorkizuneko arauaren eraginpean izan daitezkeen pertsona eta erakunde adierazgarrien iritzia jasoko da.

Kontsultak hurrengo alderdiak jaso behar ditu:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezko eta egokia den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera arautzaile eta ez-arautzaileak.

Hori dela eta, xedapena egin aurreko kontsultaren izapidea bete nahi da, arauaren eraginpeko herritarrek eta entitateek parte hartzeko eta aruari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Horregatik guztiarengatik, kontsulta:

- Egitekoa den arau horrek eragin diezaiekeen erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei ireki zaie, bai eta antolakunde, entitate eta elkarteei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren webgunean argitaratuko da.

**Resolución de 6 de agosto de 2024, del Director de Proyectos Estratégicos y Administración Industrial, por la que se somete a consulta previa la elaboración de una disposición de carácter general que modifique el Decreto 135/2008, de 15 de julio.**

El Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad considera oportuna la elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de modificar el Decreto 135/2008, de 15 de julio, por el que se regulan los costes de los servicios que las empresas distribuidoras de gas por canalización prestan a los usuarios.

El artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas dispone que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto de disposición normativa, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de las personas y organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

La consulta se debe referir a los siguientes aspectos:

- Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- Los objetivos de la norma.
- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Por ello, se pretende dar cumplimiento al citado trámite de consulta previa a la elaboración de la disposición, a los efectos de que la ciudadanía y demás entidades afectadas por la norma tengan la posibilidad de participar y realizar aportaciones a la norma que se plantea.

Por todo ello, la consulta:

- Se abre a todas aquellas instituciones públicas y personas físicas, así como organizaciones, entidades o asociaciones que puedan considerarse afectadas por esa futura regulación normativa.
- Se publicará en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.



- Hamar egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta entitateek egokitzat jotzen dituzten iradokizun eta iruzkin guztiak aurkez ditzaten.
- Se establece un plazo de diez días hábiles para que las instituciones afectadas, la ciudadanía y sus entidades presenten todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan bideratzen ari dena, aurreikusitako legeeskemari jarraikiz. Gainera, arau-proiektua egin aurretik gauzatuko da kontsulta hori, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasiera-fasearen barruan.

Otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak) ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

Ese trámite de consulta pública es, por tanto, el que en estos momentos se realiza siguiendo el esquema legal previsto. Se efectúa, además, con carácter previo a la elaboración del proyecto normativo y dentro de la fase de iniciación que regulan los artículos 4 y 5 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

En virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Xedapen orokor baten proiektua, arautu beharrekoa, kontsulta publikoaren izapidearen pean jartzea, egin aurretik.

**Bigarrena.-** Arauaren eraginpean diren herritarrek eta eragileek, egokitzat joz gero, Aginduaren Eranskinean jasotako alderdiei buruzko iritzia helaraz dezakete hamar egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 6a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazio Zuzendaria,  
ZIGOR URKIAGA URKIZA.

#### **RESUELVO:**

**Primero.-** Someter a trámite de consulta pública, con carácter previo a su elaboración, el proyecto de una disposición de carácter general con el objeto de regular.

**Segundo.-** La ciudadanía y entidades afectadas por la norma, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta Orden en el plazo de diez días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Vitoria-Gasteiz, 6 de agosto de 2024.

El Director de Proyectos Estratégicos y Administración Industrial,  
ZIGOR URKIAGA URKIZA.

## ERANSKINA

## ANEXO

### 1.- Arau-ekimen honen bidez konpondu nahi diren arazoak.

Euskal Autonomia Erkidegoan 135/2008 Dekretuak (237/2010 Dekretuarekin eguneratua) gas kanalizatuaren banatzaileek erabiltzaileei fakturatu ahal dizkieten gehieneko kopuruak ezartzen ditu, gasa hartzen duten instalazioen alta, katigatze, desconexio eta berrkonexio, egiaztapen eta aldizkako ikuskapen eskubideen kontzeptuan. Zerbitzu horien kostua KPIaren arabera eguneratzen zen urtero 2015era arte, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea indarrean sartu zen arte, eta ez ziren automatikoki KPIarekin eguneratzen.

Gainera, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren uztailaren 22ko 6/2020 Zirkularrak, garraio-bidesariak, sare lokalak eta gas naturalaren birgasifikazioa kalkulatzeko metodologia ezartzen duenak, 21. artikuluan ezartzen du sare lokaletara sartzeko bidesarien egitura, 135/2008 Dekretuan erabilitakoetatik desberdinak direnak.

Azkenik, urriaren 30eko 984/2015 Errege Dekretuak, gasaren merkatu antolatua eta gas naturalaren sistemaren instalazioetarako hirugarrenen sarbidea arautzen dituenak, ezarri zuen kudeaketa-gastuak banatzen dituen enpresari kobratzeko gehieneko tasari gehitu behar zaio.

### 2.- Onartzeko beharra eta egokitasuna.

Estatuko hainbat araudi onartu direnez, eta 2015etik prezioak igo direnez, beharrezkoa da 135/2008 Dekretua aldatzea, gas kanalizatuaren banatzaileek kobratzen dituzten gehieneko kopuruak arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoan.

### 3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

- Prezioak egungo kostuetara eguneratzea.
- Tarifak gaur egun erabiltzen diren sarbide-bidesarietara egokitzea.
- Kostuak banakatu, enpresa banatzaileari kudeaketa-gastuengatik ematen zaion ordainsaria barne.

### 1.- Problemas que se pretenden solucionar con esta iniciativa normativa.

En la Comunidad Autónoma del País Vasco el Decreto 135/2008 (actualizado con Decreto 237/2010) establece las cantidades máximas que los distribuidores de gas canalizado pueden facturar a sus usuarios en concepto de derechos de alta, enganche, desconexión y reconexión, verificación e inspección periódica de las instalaciones receptoras de gas. El coste de esos servicios se actualizaban anualmente por el IPC hasta 2015, momento en el que entró en vigor la Ley 2/2015, de 30 de marzo, de desindexación de la economía española, y ya no se actualizaban automáticamente con el IPC.

Además, la Circular 6/2020, de 22 de julio, de la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia, por la que se establece la metodología para el cálculo de los peajes de transporte, redes locales y regasificación de gas natural, establece en su Artículo 21 la estructura de los peajes de acceso a las redes locales, que difieren de las utilizadas en el Decreto 135/2008.

Por último, debe incorporarse a la tasa máxima a cobrar la retribución a la empresa distribuidora de los gastos de gestión, que fue establecida por el Real Decreto 984/2015, de 30 de octubre, por el que se regula el mercado organizado de gas y el acceso de terceros a las instalaciones del sistema de gas natural.

### 2.- Necesidad y oportunidad de su aprobación.

Como consecuencia de la aprobación de diferente normativa estatal, así como de la subida de precios desde el año 2015, es necesario modificar el Decreto 135/2008 que regula en la Comunidad Autónoma de Euskadi las cantidades máximas que cobran los distribuidores de gas canalizado.

### 3.- Objetivos del proyecto normativo que se pretende elaborar.

- Actualizar los precios a los costes actuales.
- Adaptar las tarifas a los peajes de acceso utilizados actualmente.
- Desglosar los costes de forma que se incluya la retribución por gastos de gestión a la empresa distribuidora.

**4.- Bestelako aukera arautzaileak eta ez-arautzaileak.**

Ez dago egin nahi den arauaz bestelako aukera arautzaileak, eta ez da aurkitu ordezkoko konponbide ez-arautzaile egokirik. Izan ere, ez arautzeak tarifen sistema zaharkitu batekin jarraitzea ekarriko lukeelako.

**4.- Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.**

No hay otra alternativa regulatoria diferente a la norma que se pretende elaborar y no se encuentran soluciones alternativas no regulatorias satisfactorias, pues la no regulación supondría continuar con un sistema de tarifas anticuado.